

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elizalde kontseilariak Ultzama-Arakil bisitatu du, Nafarroako baso-jarduera handieneko guneetako bat

Mugapeak Departamentuaren arloko bulego bat eta basozaintzako beste bat ditu

Asteartea, 2016.eko ekainak 14

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizalde eta Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garciak Ultzama-Arakileko baso-mugapea bisitatu dute gaur goizean, Foru Komunitateko ipar-ekialdean.

85.641 hektarea ditu azalera horrek, haietatik 54.616 basokoak dira eta 34.179, Natura Sareari dagozkie. Nafarroako basoko dentsitate eta jarduera handieneko mugapeetako bat da, haritz eta pagoen baso asko dago bertan, eta jarduera horretan tokiko erakundeek inplikazio-maila handia dute.

Irurtzunen kontseilariak Departamentuaren arloko bulegoa bisitatu du; Departamentuaren mende dauden sei langilek egiten dute lan bertan, lau administrarik eta bi albitari teknikarik, bai eta INTIAko teknikari batek eta GANASA empresa publikoko langile batek ere. Mugapeak, gainera, basozaintzako bulego bat du, bertan hamabi basozainek lan egiten dute, haietatik hiru kontratuak dira, eta lur orotako zortzi ibilgailu ditu.

Departamentuaren arloko bulegoaren funtzioak herritarrari informazioa ematea da, agiriak erregistratzea, askotariko administrazio izapideak egitea, edo Abeltzaintza Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea.

Basozaintzako bulegoari dagokionez, habitatekin zerikusia duten mugapean egindako lanen artean bertako faunaren kontrola eta jarraipena azpimarratu behar da, espezieak kontserbatzeko errolda, lagin eta babes-jarduerekin, honako espezie hauenak, bereziki: baso-igel jauzkaria eta pizidoak, espezie exotiko inbaditzaileak, bisoi amerikarra bereziki, edo espazioak kontrolatzea, Aralarko mendilerroa, esaterako.

Ehiza eta arrantzari dagokionez, basurdearen ehiza eta arrain-populazioaren jarraipena nabarmendu behar dira, amurrairena bereziki. Ingurumeneko kalitateari dagokionez, Departamentuak Ultzaman minda-planen jarraipenean egindako lana azpimarratu du, linea elektrikoek egindako kalteen txostenak, edo araztegi edo ubideen obren jarraipena.



Elizalde kontseilariak Irurtzunera egindako bisita.